

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Euskara

2019-2020 ikasturtean zenbait eremutan euskararen erabilera sustatzeko proiektuetarako dirulaguntzen deialdia arautuko duten berriazko oinarriak

2019ko maiatzaren 17an egindako bilkuran Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi egin zituen 2019-2020 ikasturtean zenbait eremutan euskararen erabilera sustatzeko proiektuetarako dirulaguntzen deialdia arautuko duten berriazko oinarriak. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan arautuaren ildotik, eta orobat Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23. artikuluan eta hurrengoetan eta Gasteizko Udalbatzak 2005eko ekainaren 17ko ohiko osoko bilkuran hasierako onespena eman zion eta 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn -5. zk. argitaratu zen Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak arautzeko Ordenantzan arautuaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 29an

Euskara Zerbitzuko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI PRUSILLA MUÑOZ

Sarrera

2018ko abenduaren 28an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak. 2019ko otsailaren 13ko ALHAOn (19. zenbakian) argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke —www.vitoria-gasteiz.org—, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko eskabideak non eta nola aurkeztu, zein betebeharrak izango dituzten, instrukzio eta ebazpena, jakinarazpena, dirulaguntzak nola justifikatu behar diren, zein formulario baliatu behar dituzten, arau-haustea eta zigorrak, interpretazioa eta aplikagarri diren araudiak eta abar.

1. Dirulaguntzen ildoak

7.2 ildoak: Zenbait eremutan euskararen erabilera sustatzeko proiektuetarako dirulaguntzak.

2. Deialdiaren xedea

Gasteizko Udalaren helburua da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea eta, beraz, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen erabilpenaren normalizazio osoa lortzeko euskararen aldeko ekintzak areagotzea.

Gasteizko Udalak beharrezko ikusi du helburu horietara iristeko programak (bereziki aisiarren, kirolen eta tokiko komunikabideen alorretan) garatzen dituzten pertsona juridiko pribatuei diru-laguntzak emateko deialdia argitaratzea. Horiek horrela, deialdi honek honako lan-multzo hauek hartu nahi ditu kontuan:

(1) Aisialdia eta kirola, oro har. Izan ere, garrantzi handia du esparru horietan euskararen erabilera indartzeak, batez ere gazteei zuzenduriko produktu eta ekimenetan, ikastetxeek egiten duten lana osatze aldera. Horrek, gainera, hizkuntzaren ikuspegi ludikoa sendotzen lagunduko luke, batzuetan izan ohi duen kutsu akademiko hutsa gaindituz eta erakargarriagoa eginez.

(2) Familiaren aisialdia eta gurasoen sentsibilizazioa. Garrantzitsua baita, halaber, guraso berriak konturatzea beren euskararekiko jarrerak eta erabilerak umeen hizkuntzaren jabetuntzan eta ohituretan duten eraginaz. Garrantzizkoa da, baita ere, familien hizkuntza ingurunea aberastuko duten produktuak, jarduerak eta zerbitzuak eskaintzea, batez ere aisialdiari lotutakoak.

(3) Helduen euskalduntzea. Euskaltegiek zeregin garrantzitsua izan dute Gasteizen, euskarak gero eta leku handiagoa izateko. Gasteiztar asko matrikulatzen da urtero euskaltegietan, eta gaur egun lehen mailako erreferente bihurtu dira euskaltegiak, bertan ikasi eta euskararen oinarriko maila lortu duten eta egun hiztun pasiboak diren hainbat eta hainbat herritarrentzat. Hor-taz, euskaltegiek ekarpen handia egin dezakete hiztun berriak euskararen mundura erakartzeko. Bereziki garrantzitsua da euskararen erabilera ez formala ahalbidetu ahal duten ekintzak eta jarduerak antolatzea.

(4) Tokiko hedabideak. Euskara Sustatzeko Ekintza Planak, bestalde, hedabideak sektore estrategikotzat jotzen ditu hizkuntzaren normalizazioaren bidean. Haien ekarpena ezinbestekoa da hizkuntzaren erabilera indartzeko eta aldi berean hizkuntza horretan gauzatzen diren kultura jarduerak hedatzeko. Bide horretan tokiko hedabideen garrantzia azpimarratzen da bereziki. Gasteizko Euskararen Erabilera Sustatzeko planean ere, euskarazko tokiko hedabideak sendotzeko formulak aztertze beharra azpimarratzen da, bereziki ekimen soziala oinarri dutenak.

(5) Aisiako eta astialdiko hezitzaile-taldeekin lan egitea, neska-mutilen sozializazioan euskararen presentziak duen garrantziaz jabetu ahal izateko.

(6) Euskararen gizarte-antolamenduen lana eta konpromisoa ikustaraztea, eta hizkuntzaren normalizazio prozesuan elkarrekin batera lana egiteko borondatea agerian uztea. Horretarako testu-inguru egokia izan da Euskararen Nazioarteko Egunaren eta Euskararen Astearen inguruan egindako programazioa, baita Euskaraldiaren inguruko dinamika ere. Bide hori osatzen eta garatzen jarraitzea proposatzen da. Horretarako, aurten Euskararen Astearen ekintzak hainbat astetan zehar antolatuko dira.

Diruz lagunduko dira 2019-2020 ikasturtean egingo diren proiektuak edo jarduerak.

3. Diruz lagundu daitezkeen proiektuak

Oro har, ekintzek zein jarduerak edukietan eta prozeduretan nabari-nabaria izan behar dute sentsibilizazioan edo hizkuntza ohituretan eragiteko helburua: justifikatu ere proiektuan bertan justifikatu behar da ekintzak helburuari nolako ekarpena egiten dion. Jarduera euskaraz izatea ezin da arrazoi nahikoa izan deialdi honetan lekua izateko.

Diruz lagundu daitezkeen proiektuak ondorengoak dira:

— A multzoa: HABEko erregistroan homologatu gisa ageri diren hiriko euskaltegiek antolatutako ekintzak, ikasleak euskarazko aisialdiaren eskaintzara hurbiltzea eta ikaste-prozesua azkartzea helburu dutenak. Antolatzen diren ekintzak edozein euskaltegitako ikasleei edo publiko osoari irekiak egongo dira. Helburu horrekin material bat sortzea asmoa bada, materiala euskaltegi guztien esku egongo da.

— B multzoa: Guraso-elkarteek edo guraso elkarten federazioek antolatutako ekintza edo jarduera ez ohikoak, ikasleei zein gurasoei begira pentsatutakoak eta sentsibilizazioa edo euskara erabiltzeko ohiturak sortzea helburu dutenak. Bereziki balioetsiko da jarduera ikastetxeen arteko lankidetzan garatzea edo kanpaina edo proiektu baten egitura izatea.

— C multzoa: Oro har, urtean zehar, aisialdian edo kirolean euskararen erabilera sustatzeko proiektuak, aurreko ataletan aurreikusi gabekoak.

– D multzoa: Gasteizko euskarazko tokiko hedabideak sendotzea, euren kalitatea eta irismena hobetuz. Euskara hutsezko hedabideak lagunduko dira, ekimen sozialekoak bereziki. Ez dira lagunduko honako hauek: erakunde batek beren bazkideentzat soilik eginiko hedabideak; eskola-aldizkariak, eskola-irratia eta antzekoak; kultura berripaperak, ikuskizun gidak, denbora pasakoak eta antzekoak. Hedabide idatzia bada, urtean 11 zenbaki argitaratu behar ditu gutxienez, eta irratia edo telebista baldin bada, eguneroko emisioa izan behar du. Balioetsiko da bereziki informazioa emateaz gain euskarazko kultur eta gizarte jarduera proiektatzeko baliagarria izatea. Helburua kalitatea zein irismena izanik, inpresio, banaketa eta sustapen gastuak lagunduko dira soil-soilik.

– E multzoa: Euskararen Astea esaten dugunean, ez diogu erreferentzi egiten aste bakar bati asmoa baita Euskararen Astearen ekitaldiak hainbat astetan zehar antolatzea. Euskararen Nazioarteko eguna ikusmiran hartuta, irailetik aurrera hainbat ekintza antolatu nahi dira, Gasteizko euskalgintzaren eta Gasteizko euskararen ikuspegi ezberdinak erakusteko. Askotariko gaiak proposatu ahal dira: euskara Gasteizko auzoetan, euskara teknologia berrietan, euskara Gasteizko musikagintzan, euskara lan munduan eta abar. Multzo honetan proiektua aurkezten duen elkarteak data bat proposatu ahal du, baina prest egon behar du data hori aldatzeko, ekintza guztiak programazio bakar batean bilduko baitira.

– F multzoa: Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskola ofizialki izendatua duten pertsona juridiko pribatuek eskura ditzakete dirulaguntzak. Ikastaro horiek euskaraz izan daitezten sustatzea da helburua, baita ikasleentzat lehiakorragoak izatea ere, eta/edo aisia eta astialdiko jardueretan euskararen erabilerari lotutako edukiak lantzea ikastaro horietan.

Aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroek honako betekizunak bete beharko dituzte:

1. Ikastaroek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: haurren eta gazteen aisialdiko hezitzaileen prestakuntza eskolen ofizialtasuna arautzen dituen Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren azaroaren 2ko 419/1994 Dekretuak, eta dekretu horren I. eta II. eranskinak eguneratzen dituen 2016ko urriaren 27ko Aginduak ezarritakoak.

2. Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak emateko eskola izateko izendapen ofiziala izatea.

3. Eskolek aurreko hiru ikasturteetan Gasteizen ikastaroak eman behar izan dituzte.

4. Programazioaren eskola-orduen ehuneko laurogei gutxienez euskaraz izango da eta ikasleek hala jaso beharko dute.

5. Ikastaroak Gasteizen ematea 2019ko uztailaren 1etik 2020ko uztailaren 1era bitarteko epearen barruan.

4. Baliabide ekonomikoak

Deialdi honen ildotik ematen diren laguntzak Alkatetza Saileko Euskara Zerbitzuaren 2019ko ekitaldiko aurrekontuetako 0171.3351.48005 partidan jasotako aurrekontu-kredituaren kontura joango dira. Gehienez 96.000,00 euro baliatu ahal izango dira horretarako.

Kopuru hau horrela banatuko da 3. artikuluan zehaztutako multzoen artean:

A multzoa: 12.000,00 euro.

B multzoa: 21.000,00 euro.

C multzoa: 18.000,00 euro.

D multzoa: 20.000,00 euro.

E multzoa: 19.000,00 euro.

F multzoa: 6.000,00 euro.

Batzorde teknikoak ahalmena izango du proiektuak multzo batetik bestera aldatzeko, zein multzotarako aurkeztu diren, hartan ondo egokitzen ez badira. Entitate eskatzaileak berariazko jakinarazpena jasoko du.

Multzo horietako batean egitasmoei esleitu beharreko dirulaguntza esleitu ondoren diru hondarririk bada, balorazio-batzordeak diru-hondar hori gainontzeko multzoetara bideratzea proposatu ahal izango du.

5. Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta horretarako epea

Eskabidea egiteko honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- 0 eranskina. Eskabide orria.
- 1 eranskina. Egitasmoaren azalpena eta aurrekontua.

Eranskinak web orrian eskuratu ahal dira (eskaera orokorraren eranskina).

Eskabideak aurkezteko epea 2019ko uztailaren 3an amaituko da.

6. Balioesteko irizpideak eta balorazio batzordea

A, B, C eta E multzoak balioesteko honako irizpide hauek erabiliko dira:

(a) Proiektuaren interesa, euskararen ikuspegitik. ESEPen helburuekin bat etortzea: 40 puntu.

a.1. ESEPen helburuekin bat etortzea. 20 puntu.

a.2. Proiektuaren onuradunak: irismenaren eta trinkotasunaren arteko oreka, zuzendua dagoen kolektiboa, parte-hartzaileen kopurua. 20 puntu.

(b) Proiektuaren metodologia eta garapena: 30 puntu.

b.1. Proiektua gauzatzean eta jarduerak ebaluatzean baliatuko diren oinarriak, helburuak eta metodologia. 10 puntu.

b.2. Originaltasuna, berrikuntza, proiektua sendotzea. 10 puntu.

b.3. Proiektuaren barne- eta kanpo-komunikazioa. 10 puntu.

(c) Entitate eskatzailearen balioespina eta bideragarritasun ekonomikoa: 20 puntu.

c.1. Proiektua garatzeko gaitasuna. Horren bideragarritasun teknikoa. 5 puntu.

c.2. Egitura parte-hartzailea; parte hartzen duten bazkideen kopurua. 5 puntu.

c.3. Jardueraren edo elkartearen ibilbidea. 5 puntu.

c.4. Bideragarritasun ekonomikoa. Efikazia, baliabide ekonomiko eta materialak eta giza baliabideak esleitzean. 5 puntu.

(d) Zehar lerroak: 10 puntu.

d.1. Genero-berdintasuna sustatzen duten ekintzen garapena. 5 puntu.

d.2. Kultura-aniztasuna sustatzen dituzten ekintzen garapena. 5 puntu.

D multzoa balioesteko honako irizpide hauek erabiliko dira:

(a) Hedabideak lantzen dituen gaiak eta gai horiek ESEPen lan-ildoekin eta helburuekin ondo lerrokatzea: 40 puntu.

a.1. Helburuekin bat etortzea. 13 puntu.

a.2. Euskarazko kultur eta gizarte jarduerari proiektzioa ematea. 13 puntu.

a.3. Edukien kalitatea, berrikuntza eta originaltasuna. 14 puntu.

(b) Hedabidearen maiztasuna eta orri kopurua edo emisioaren maiztasuna eta iraupena: 20 puntu.

(c) Hedapena edota zabalkundea: 30 puntu.

c.1. Ikusle, entzule edo irakurle kopurua. Datua egiaztatzen duten agiriak aurkeztu behar dira: agiri ofizialik ezean, fakturak edo bestelako agiriak aurkeztu ahal izango dira. Internet bidezko hedabideak badira, neurketak google analytics-en bidez egingo dira.

(d) Zehar lerroak: 10 puntu.

d.1. Genero-berdintasuna sustatzen duten ekintzen garapena. 5 puntu.

d.2. Kultura-aniztasuna sustatzen dituzten ekintzen garapena. 5 puntu.

Eskatzaileak puntu horiek guztiak baloratzeko behar beste informazioa eman beharko du eskaeran bertan.

Irizpide horiek aplikatzen direlarik, gehienez eskura daitezkeen 100 puntuetatik gutxienez 50 lortzen dituzten proiektuak aukeratu dira.

Aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta balioesteko, Euskara Zerbitzuko teknikariek, Arabako Foru Aldundiko ordezkari batek eta Euskara Elkarguneak izendatuko duen ordezkari batek osatutako balorazio-batzordea eratuko da.

F multzorako balorazio-irizpiderik ez dago, emateko prozedura hainbanaketa izango baita.

7. Konkurrentzia-erregimena

Norgehiagoka (F multzoa izan ezik, hainbanaketa egingo baita).

8. Ez dira diruz lagunduko

Ezin izango dira diruz lagundu:

– Euskaraz izanik ere, beren jardute-arloan euskararen erabilera sustatzea helburu espezifikoa eta nabarmena ez duten programak.

– Bere osotasunean Gasteizko udalerritik kanpo gauzatzen diren proiektuak.

– Beste udal sail edo beste erakunderen baten berariazko eskumenekoak diren eta horien laguntza- edo lankidetzatza-ildoren baten barruan sartzen diren proiektuak.

– Vitoria-Gasteizko Udalak edo Arabako Foru Aldundiak hitzarmen bidez finantzatzeko dituen jarduerak edo programak.

– Hezkuntza programak edota izaera akademikoa dutenak. Oro har, kasu berezirik ez bada, ezin izango dira, beraz, diruz lagundu eskola-ordutegiaren barruan egiten diren programak.

– Vitoria-Gasteizko Udaleko edo Arabako Foru Aldundiko euskara zerbitzuek eskaintzen dituzten proiektuen pareko diren proiektuak, haien osagarri direnean izan ezik.

– Eskabidea egiten duen entitateko bazkideentzat bakarrik diren proiektuak.

– Eskaria egiten duten erakundeen azpiegiturei eta mantentze lanei dagozkien gastuak. Ezta elkarte edo entitateko kideen dieta edo bidaiak sortzen dituzten gastuak proiektua antolatze lanetan ari direnean. Halaber, egonaldiak eta txangoekin lotutako gastuak lagunduko dira soilik baldin eta jarduerari estu-esturik lotuta badaude. Koordinazio gastuak ezin izango dira izan aurrekontu osoaren ehuneko 30 baino handiagoak.

9. Jarduera edo proiektu bakoitzak jasoko duen zenbatekoa

Jarduera edo proiektu bakoitzak jasoko duen zenbatekoa erabakitze honako puntu hauek erabiliko dira:

– A eta C multzoei dagokienez, proiektuaren aurrekontuaren ehuneko 80koa izango da diru-laguntza, gehienez ere. Dirulaguntzaren zenbatekoak inolaz ere ezingo du gainditu 7.000,00 euroko kopurua A multzora aurkeztutako proiektuaren kasuan, edo 4.000,00 euroko kopurua C multzoaren kasuan.

– D multzoari dagokionez, diruz lagunduko direnak soil-soilik inpresio, banaketa eta sustapen gastuak izanik, egitasmoek gehienez ere gastu horien ehuneko 40 jaso ahal izango dute.

– B eta E multzoen kasuan, aurrekontuaren ehuneko ehuna lagundu ahal izango da diruz. B multzoaren kasuan, gehienez ere, 4.000,00 eurokoa izango da dirulaguntza; E multzoari dagokion kopurua, berriz, aurkeztutako proiektuen artean banatuko da.

– Prozedura norgehiagoka denean, hautatutako proiektuetako bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa erabakitzeke, aurrekontuen arabera eta lortu dituzten puntuazioen arabera banatuko da multzo horretako kreditua. Ez da inolaz ere gaindituko Euskara Zerbitzuari eskatutako diru-kopurua, eta beti ere aurreko atalean finkatutako muga errespetatuko da.

– Diruz lagundutako jarduera edo proiektuak garatzeko inolako zalantzarik gabe behar direnak joko dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat. Eskuratze-kostuak inolaz ere ezingo dira izan merkatuko baliotik gorakoak.

– Baldin eta elkarte eskatzaileak aurkezten duen aurrekontuan aurreko atalaren ildotik diruz lagundu ezin diren gastuak sartzen badira, ez dira zenbatuko diruz lagundu daitezkeen gastuak zehazterakoan.

– F multzoari dagokionez, hainbanaketa egingo da. Horrela, eskatzaile bakoitzak 180,00 euro jaso ahal izango du ikastaroetan izena emandako pertsona bakoitzeko. Eskaerak ezin izango dira partida honetarako ezarritako kopurua baino gehiago izan. Hala gertatuko balitz, horretarako dagoen diru-kopurua, betekizun guztiak betetzen dituzten eskaera guztien artean banatuko da.

10. Dirulaguntza justifikatzeko modua

Justifikazioa oinarri orokorretako 13. atalak ezartzen duenaren arabera egin behar da.

2020ko irailaren 29a da horretarako azken eguna.

Diruz lagundutako jarduerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak izango dira dirulaguntza jaso dezaketen gastuak. Orobat honako gastu hauek aurkeztu ahal izango dira: (a) diruz laguntzen diren ekitaldiak burutu dituzten langileen gastuak (nominak, joan-etorriak, dietak...); (b) beste enpresen edo entitateen zerbitzuen kontratazioari dagozkionak; (c) publizitate-gastuak; (d) produkzio-gastuak; eta (e) ekitaldia burutzeko egin diren bestelako gastuak, hala nola, bulegoko material suntsikorra, informatika materialen konponketa, telefono eta internet gastuak, fotokopiak, posta edo mezularitza, garbiketa gastuak...

Aurkezten diren fakturen edo agirien zenbatekoak, guztira, ordaindutako dirulaguntza osoa hartzen ez badu, edo diruz lagundutako proiektua gauzatzerik izan ez bada, hala jakinarazi behar da, eta dena delako diru kopurua Gasteizko Udaleko Diruzaintzara itzuli.

11. Beste dirulaguntza edo laguntzekiko bateragarritasuna

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarri izango dira helburu berarekin beste edozein erakunde publikok edo pribatuk ematen dutenekin, gain-finantzaziorik gertatzen ez den bitartean. Halakorik gertatuz gero, murriztu egingo da dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienezko mugara arte.

Diruz lagundu ahalko dira Gasteizko Udalaren beste sail edo zerbitzuek diruz laguntzen dituzten proiektuak ere, baina edozein kasutan, departamentu guztien artean emango den dirulaguntzak ez du inolaz ere proiektuaren aurrekontuaren ehuneko 80a gaindituko, B eta E multzoetako proiektuetan izan ezik, horiek ehuneko ehuna jasoko baitute dirulaguntzetan.

Deialdi honetara aurkeztutako proiektua garatzeko bestelako dirulaguntzarik eskatu eta lortu duten elkarteek beren programaren azalpenean adierazi behar dute zein erakunde edo administrazioari eskatu dioten eta zenbat eskuratu duten (erakunde horiek pribatuak zein publikoak izan, estatukoak nahiz atzerrikoak).

12. Dirulaguntza ordaintzea

Deialdiari dagokion ebazpena onartu ondoren, onartutako kantitateak oso-osorik ordainduko dira, jarduerak aurrera eramateko ezinbesteko finantzazioa dela jotzen baita.

Ordainketa egin aurretik, entitateak egiaztatu beharko du zorrik ez duela ez Foru Aldundiko Ogasunarekin, ez eta Gizarte Segurantzarekin ere. Entitateak zerga-betebeharrak bete ez baditu, ez zaio dirulaguntzarik ordainduko, elkarrekin bete behar horiek bete dituela egiaztatu arte.

13. Onuradunaren betebeharrak eta lankidetzak

Deialdi honetako dirulaguntzen onuradun diren entitateek honako betebeharrak izango dituzte:

– Dirulaguntza onartzea. Hamabost eguneko epean berariaz eta idatziz uko egiten ez badite -eman zaiela jakinarazten zaien egunetik kontatuta-, onartu egiten dutela ulertuko da.

– Dirulaguntza jaso duen proiektua dela-eta egiten diren egitarau, kartel, argazki eta bestelako material grafiko idatzizko nahiz soinuzkoetan, Gasteizko Udalaren logotipoak erabili beharko dira. Elementu horiek udalaren irudi korporatiboarekin bat etorrita erabiliko direla zainduko du Euskara Zerbitzuak. Udalak eta Eusko Jaurlaritzak EAEko toki-erakundeetan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia / Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (EBPN/ESEP) garatzeko duten lankidetzaren baitan dagoenez, markak eta logotipoak han ezarritako irizpideen arabera erabiliko dira.

– Emakume eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 legean xedatutakoari jarraituz, hizkera sexistarik ez erabiltzea, eta, gizonen eta emakumeen roleri dagokienez erabilera estereotipaturik ez erabiltzea. Era berean, proiektu hauen baitan biltzen diren datu guztiak sexuaren arabera bereizita emango dira.

Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan jarduteko konpromisoa hartuko du bere gain programa honen baitan eskaria egiten duen elkarte orok.

Lankidetzak horren arabera, udalaren ekipamenduak erabili ahal izango dira jarduerak antolatzeke. Horrelakoetan, kasu bakoitzari dagokion hobaria eman ahal izango da tasetan, edo ordaintzetik salbuetsi, ekipamendu bakoitzaren arau espezifikoak hori baimentzen duenean. Hala ere, eskatutako kanpo-zerbitzuak ordaindu beharko dituzte onuradunek.

Euskara Zerbitzuak ekintza eta programa horien zabalkundea egin dezake Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren baitako programa eta egitarauetan, edozein kasutan ere erakunde antolatzailea zein den argi adierazita.